

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

57
positibo berri
3.278
positibo guztira*

NAFARROAN

81
positibo berri
7.108
positibo guztira

*Hernanin 80 Astigarragan 24

Maria Berasarte abeslariak bihar bere azken lana, 'Lurra eta Bidea', Atsegindegin estreinatuko du

Uda programaren barruan kantari donostiar arrakastatsuak lehendabiziko aldiz «euskal sustraietara» egingo du bidaia, 20:00etan.

HERNANI MUSIKA

Maria Berasarte abeslariak *Lurra eta Bidea* proiektua aurkeztuko du bihar, 20:00etatik aurrera, Atsegindegin. Bertan bere lurra-ri eta jatorriari oda forma ematen dion istorioa irudikatzen du. «Estreinaldi mundiala» dio Berasarte berak eta bertan iberiar musikatik abiatuta baina beti euskal sustraiak zainduz bere karrera garatu duen emakume baten kezka agertzen da. «Hau joan-etorriko bidaia bat da».

Bere ibilbidean, klasikotik abiatuta, fadora eta flamenkor iritsi zen, musika zeltara eta sefardira, eta beste genero batzuetako ezagutzak lortu zituen bere jatorria galdu gabe. Besteak beste, Jordi Savall, Ara Malikian, Paco de Lucia eta Carlos Do Carmo bezalako artistekin elkar-lanean aritzea lortu zuen, eta nazioarteko hainbat gune eta jaialditan aritu zen, hala nola Sibiuko Nazioarteko Jaialdian (Hong Kong Arts Festival) edo Bruselako Palais de Beaux-Artsen.

Lurra eta Bidea, Berasartaren proiekturik pertsonalena eta originalena da. Bertan, bere euskal sustraiak erakutsiko ditu, beste musika estilo batzuetan zehar egindako bidaia, lehen aldiz euskal musika eta poetikara itzuli izana nabarmenduko den, «lehenengo aldia da nire herriari lan bat eskaintzen diodana».

Idea, euskal sustraietako dago-kienez lehen aldiz, lan berri eta pertsonal bat egiteko borondaketik sortu zen. Bere jatorriaren iruditeriarekin, bere nazioarteko ibilbidearekin eta abeslariaren eta euskal kulturaren sentimenduekin bat egiteko musika

berriak ekartzeko borondatea.

Jarraipena izan eta mugak gainditu nahi dituen proiektua da. Euskal izaera musikala ezagutzera emateko modu bat, hain dokumentatua ez den ikuspegi batetik. Gutxi dira honelako proiektuak zuzentzen dituzten emakumeen ahotsen erreferentziak, gure mugetatik kanpo beren burua gehiago eza-gutarazteko gaitasunarekin.

«Hiru zatitan banatuta dagoen ikuskizuna da»

Hiru zatitan dago banatua emalaldia. Lehenengoan «jatorria edo ahotsaren jatorriaren imajinarioa, sentsazioak... agertzea David Azurza abeslariarekin batera egiten dut. Bera da nire gonbidatua. Gero bigarren parte bat dago bilatzearen bidaia izango litzatekeena, zer egin dudana Portugalen eta ibilbidea agertzen duena. Eta gero nire lurreko musikara iristen gara, musika tradizionala edo herrikoiera hurbiltzen gara modu esperimental batean etorkizunera begira jarritz. Nahiz esperimentala izan oso koherentea da». azpimarratzen du Berasartek.

Abeslari donostiarrak bere erreperitorioan euskal kantua sartzen du beti eta aukera paregabea izango litzateke ikuskizun inspiratzaile eta paregabea garatzeko, artistaren ezaugarriengatik. Maria Berasartek Joseba Irazoki, gitarra, Igor Telletxea, perkusioa eta David Azurza izango ditu lagun. «Ez da aurretik egin dudana proposamen bat, baina noski jendeak niri entzungo dit, ez zaio arrotza egingo. Gitarra klasikoaren egon beharrean Berako musikariaren elektronikoa agertuko da, efektuak egongo dira. Ez nuen

geratu nahi abestu eta txaloak jasotzearekin. Haratago joan nahi dut *Lurra eta Bidea*arekin. Jatorrirra, sustraietarako buelta izatea nahi dut, garai batetik, bidea eginez etorkizunera iritsi nahian. Modu elegantean ariko gara, baina ausardiarekin».

«Euskeraz asko abestuko dut, beste hizkuntzetan ere bai»

Lau edo bost abesti euskeraz abesten ditu. «Lehenengo partean ez dira abestiak, inprobisazio asko egongo da eta ahotsaren iturriaren bilaketa izango da, gure ADN aurkitzea helburu, nondik datorren ahotsa», aurreratzen du abeslariak.

Eta zer horrela? Zerbait aportatu nahi duelako. «David Azurza abeslari haundiarekin egingo dut hori. Beraz, euskeraz abestuko du, gaztelaraz ere bai bi abesti eta portugesez ere bai».

Berasartek beste emanaldiaren ezaugarri batzuk ere ezagutarazten ditu. «Kontzertu oso berezia izango da eta pena da zortzietan izatea. Berez prestatuta dago gauerako, sentsazioak eragiteko eta sortzeko, 70 minutuko ikuskizuna prestatu dugu. Orain jendearen erantzunaren zain gaude. Estreinaldia da eta erantzun ona izatea espero dugu. Seguru horrela izango dela». Bere ustez entseguekin urduritasunak sortzen dira eta aurreneko emanaldia izateak eragiten du horretan.

«Hernanin eskaini ditut kontzertuak eta Udalaren laguntza ekonomikoa eskertu nahi dut»

Apirilaren 13an estreinatu behar zuen *Lurra eta Bidea* Hernanin baina dena bertan behera geratu zen pandemiaren eraginez. «Donostian egin dut konfinamendua. Ez da erraza izan etxean sartuta egotea, amets gaizto bat, oraindik ere horrela gabilta. Ez dut ezer sortu, gorputza geldirik



Maria Berasarte abeslari donostiarra.

geratu zen. Erreflexiorako balio izan dit, bizitzaren ikuspunturako, entzuteko... hori izan da gauzarik positiboena».

Hernanirekin ez du lotura berezirik. «Bizilagun onak izatea soilik» nahiz eta aurretik eman dituen kontzertuak. «Subita lanarekin Hernanin izan nintzen» eta Hernaniko Udalari eskerrak eman nahi dizkio. «Apirileko kontzertua bertan behera geratu zen, baina artistei ordaintzeko konpromezua hartu zuen. Geldialdian laguntza ekonomikoa behar genuela ulertzen zuen eta nik dakidala hori egin duen Udalak bakarra

izan da Munduan. Ikaragarria da eta asko eskertzen da».

Azkenik Udalak gogoratzen du ekitaldia doakoa dela, baina aldeztu aurretik gonbidapena eskuratu behar da Biteri kultur etxean. (09:00-14:00)

Emanaldi guztiak aulkietan eserita izango dira eta eserlekuaren artean distantzia gordeko da. Sarrera eta irteeran maskara jarri behar da, bai eta gel desinfektatzailea eman ere.

Gonbidapenak Biterin gaur eskatu behar dira eta egunean bertan gonbidapenak ez dituenak joan daiteke Atsegindegira tokia bete arte. **K**

**Abuztuan,
larunbata eta igandeetan
itxita.**

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

JOXE MARI
EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Astelehenetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzear, zozketan parte hartuko duzu:

**ASTEBURU BAT
DEBAKO AISIA SPAN**

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

MARISCOS HERNANI

Javier Justiz
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

TTILIN & TTOLON

BELAR DENDA

**TERAPIA NATURALAK
KONTSULTAK**

943 55 56 94

Txirrila, 10 - HERNANI

Donostiako Piratek Pirata Setioa antolatu dute, festen alternatiba gisa

Aste Nagusia ohiko moduan ospatuko ez denez, egun osoko egitaraua prestatu dute Donostiako Piratek astelehenerako, Trinitate plazan.

DONOSTIA ASTE NAGUSIA

Pandemia hasi zenetik herri eta hirietako festa guztiekin gertatu den moduan, Donostiako Aste Nagusia ez da ohikoan bezala ospatuko aurten. Hala ere, Donostiako Piratek plan «alternatiboa» prestatu dute: Pirata Setioa. Datorren astelehenean izango da, Trinitate plazan. Bertan egitea erabaki dute, piraten mugimendua plaza horretan hasi zelako. Izan ere, han jarri zen lehen aldiz La Flamenka karpa, 2004 urtean. Aurtengo Matti hiriko tabernariak iza-

tea erabaki dute Piratek, hauen egoera bereziki zaila izaten ari delako pandemia garaian.

Egun osoko egitaraua pres-
tatu dute piratek. Beraien asmoa
ez da festa jendetsua egitea, bai-
na giroa alaitu eta «kaleak har-
tu» nahi izan dituzte, aurreko
festetan egin duten moduan.
Adierazi dute, beharrezko segur-
tasun neurriak hartuko dituzte-
la eta arduraz jokatzeko eskatu
diete gerturatuko diren guztiei.

**Adin guztientzat, ondo
pasatzeko aukera**
Eguerdian hasiko da piratek

prestatutako plangintza alternatiboa. Haurrentzako ikuskizun batekin emango diote hasiera Pirata Setioari, 12:00etan. Bazkal ostean, 16:30etan, musika emanaldi bat egingo dute, eta, 19:00etan, bertso musikatua. Bukatzeko, *Izan Pirata* dokumentala jarriko dute, 22:0etan.

Bestalde, Donostiako Udalak piratei oztopak jarri dizkiela adierazi dute eta festak bertan behera uztea erabaki zuten, piratei iritzirik galdetu ez zietela salatu dute. Gainera, esan dute oztopoak jarri dizkiela proposamen edo ideia berriak aurrera eraman nahi izan dituztenean. Horregatik, piratek larunbateko jai herrikoien aldeko manifestazioa deitu dituzte herritarrek. **K**



Antzerkia, musika, poesia eta bertsoa fusionatu zituzten, beste disziplina askoren artean.

Poesia, bertsoa eta antzerkia, 'Erik eta Win' bertso-antzerkian

HERNANI UDA HERNANIN

Joan den asteburuan, 'Erik eta Win' bertso-antzerkia eskaini zuten Unai Muñoa eta Ander

Lizarralde bertsolariek eta Imanol Kamio pianoak. Aitor Atxaga gitarra eta eskusoinua ez zen oholtza gainera igo, oraingo honetan. Hala ere, saio arrakas-

tatsua izan zen, jende ugari gerturatu zelako bertara. Poesia, musika, bertsoa eta antzerkiaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek. **K**

Udako Zinemaldiko azken saioa gaur izango da, pelikula finlandiarrarekin

Zinemaldiari amaiera emateko, gaztelerazko azpititularrekin, finlandiar jatorriko pelikula proiektatuko da gaur Atsegindegín, 22:00etan.

HERNANI ZINEA

Hiru pelikula proiektatuko dira guztira Udako Zinemaldian aurtten. Gaur da azken saioa eta finlandiarren txanda da. *Kovasikajuttu* (Punk Sindromea) filmak emango dio amaiera aurtengo egitarauari. Lurralde ezberdinetakako proiektzioak izan

dira pelikulak. Gaurkoak 85 minutuko iraupena izango du eta aurrekoak bezala, 22:00etan hasiko da. Gaztelerazko azpitu-larrak izango ditu, aurreko hiru proiektzioek izan duten modura.

Justizia sozialari, gogoeta
Filmaren protagonista punk
talde bat da, ezgaitasun sikikoa

duten lau finlandiarrez osatua. Borroka eta oihuka egiten dute, kafea edaten dute, protesta egiten dute eta kontzertuen ostean osasun zentrora itzultzen dira. Ez dira bipolarrak edo eskizofrenikoak: ezgaitasun psikiko latzak dituzten pazienteak dira eta, zailtasunak izanda ere, euren desioak, amodioak, gogoak... adierazi nahi dituzte.

Irudi gordinak agertu arren, anomalitateari bihotzez egindako omenaldi bat da *Kovasikajuttu*. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† NATALIA UGALDE AGIRRESAROBÉ

Herenegun hil zen, 79 urte zituela

- Goian bego -

Bere ahizpa: Pilar eta Javier Sagastagoitia (†); bere anaiak: Patxi (†) eta Manoli Beroitz, Joakin eta Karmen Etxezarreta, Iñaki eta Kontxi Rekondo; bere ilobak: Mirari, Arantxa, Felipe, Zikuñaga, Eneko, Iratxe, Iñaki, Lurdes, Jon; eta gainontzeko senideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Hernanin, 2020ko abuztuaren 7an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.



† NATALIA UGALDE AGIRRESAROB

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan

**ZURE ILOBAK: MIRARI, ARANTXA,
FELIPE, ZIKUÑAGA, ENEKO, IRATXE,
INAKI, LURDES ETA JON**

Hernanin, 2020ko abuztuaren 7an

NATALIA UGALDE AGIRRESAROBÉ

Herenegun hil zen, 79 urte zituela

- Goian bego -


*Gutako bat joan da.
Emakume bizia, borrokalaria
eta energiaz beterikoa.
Indartsuagoak izaten
erakutsi zigun.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko*

Hernanin, 2020ko abuztuaren 7an

XX. URTEURRENA

Ekain Ruiz Ibarguren

*Ahazten dugun hura
hiltzen delako soilik,
maite zaitugulako
oroitzen zaitugu bizirik.*



ETXEKOAK ETA LAGUNAK

Hernanin, 2020ko abuztuaren 7an

IRAGARKI MERKEAK

58 urteko emakume bat eskaintzen da gauetan gaixoak zaintzeko, bai beraien etxeetan baita ospitalean ere. Eskarmentuarekin. Deitu: 644 269 848

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatía, kinesiología, reiki, homeopatía, acupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**